

Ostirala

2017ko apirilaren 7a
VIII. urtea
300. zenbakia

www.gipuzkoa.hitza.eus
gipuzkoa@hitza.eus

6 Elkarrizketa Idoia Iturberekin
hizketan, patriarkatuaren
eta mikromatxismoaren eraginez

7 Binakako Txapelketa
Mikel Unanue eta Jokin Errasti,
1998ko finaleko kontuak gogoratuz

GIPUZKOAKO HITZA

Turismo datuetan gorantz begira



JUAN HERRERO / EFE

Dauzkaten erreserbak eta aurreko urteko datuak kontuan hartuta, Aste Santurako aurreikuspen onak dituzte turismo arloko eragileek • Hiriburuak jarraitzen du jomuga erakargarriena izaten • 2-4

Aste Santuaren atarian, turismo sektoreko eragileak baikor agertu dira aurreikuspenekin. 2015ean, baina batez ere 2016an, izandako egoerari eusteko esperantza dute. Egun hauetako bisitari gehienak Euskal Herrikoak izaten dira, eta, haien atzetik, Madril eta Kataluniakoak.

Berdea eta urdina dira amua

Eider Goenaga Lizaso

Aste Santuko oporrak gainean, asteburuan jada hasiko da bisitarien etorrera antzematen. Baina, turismoaren ikuspegitik, egun inportanteenak ostegunetik igandera bitartekoak dira. Herri txiki asko hustu egingo dira datorren asteburuan, baina beste herri batzuk bisitariz beteko dira, kostaldekoak horietako asko, eta, batez ere, hiriburua. Turismo arloko eragileak pozik daude azken bi urteetako joerarekin, eta aurten goranzko joerari eustea espero dute.

Nekatur Araba, Bizkai eta Gipuzkoako landa turismo elkarteak Gipuzkoarako dituen aurreikuspenek hala diote, behintzat: %88ko okupazioa ostegunean, %95ekoa ostiralean eta %92koa larunbatean. Martxoaren 28ko erreserba datuak dira, baina Aste Santu bezperako egunotan ia dena betetzeko aukera handia dela adierazi dio *Hitza*-ri Idoia Ezkurdia Nekaturreko arduradunak. Nekaturrek 133 nekazaritza turismo eta landa etxe kudeatzen ditu Gipuzkoan, eta 1.523 lagunentzako tokia dute guztira.

Aste Santuko turismoa, batez ere, euskal herritarrek eta Madril eta Kataluniatik etorritakoek osatzen dutela diote turismo sektoreko eragileak. Nekaturreko iazko datuek baieztatzen dute hori. 2016an, Hego Euskal Herriko bezeroak %34,9 izan ziren; atzetik, katalanak (%18,6), madrildarrak (%18,1) eta valentziarrak (%6,3). Espainiako Estatutik kanpoko atzerritarrek %17 inguru osatu zuten. «Aste Santuan bertako bezeroak dira gehienak; gure kasuan, asko Nafarroatik etortzen dira. Uda sasoian, euskaldunak, oro har, gutxiago dira, eta atzerritarren kopuruak gora egiten du», azaldu du Ezkurdia.

Nekazaritza turismoetako bezeroak bikoteak, familiak eta lagun talde handiak izaten direla dio Ezkurdia. «Udan, adibidez, etxe oso bat hartzen duten 15-20



Gipuzkoara etortzen den bisitari askok landa eremura jotzen du, lasaitasunaren eta naturarekiko kontaktuaren bila. HITZA

laguneko taldeak oso gutxi izaten dira».

Bost egun, 18.000 bisitari

Aquariuma da Gipuzkoan gehien bisitatzen den museoa. «2016an marka guztiak hautsi genituen; bai urte osoko datuak kontuan hartuta (334.311 bisitari), eta baita Aste Santuko bost egunetako kopuruei erreparatuta ere (18.116 bisitari)». Aquariumean, landa etxeetan bezala, bezero gehienak euskal herritarrak izan ziren Aste Santuan. «18.000 horietatik 7.000 bizkaitarrak izan ziren. Nafarrak ere asko, eta Iparraldekoak ere bai. Turista asko etortzen da Aste Santuan, eta bertako asko joaten dira kanpora, baina bertako askok, opor egunetan kanpora joan beharrean, hurbileko planak egiteko aprobetxatzen dute; Donostiara egun-pasa etortzen dira, eta gure eskaintza oso baloratua da», esan du Xabier Lasa Aquariumeko marketin arduradunak.

Aste Santuak duen garrantziari erreparatuta, sektoreko eragile askok eskaintza indartu egiten

dute. Hori da, adibidez, Aquariumaren kasua. «Batez ere harre-ran dagoen lantaldea indartzen dugu, bezeroarekin kontaktua duena. Ordutegia ere zabaltzen dugu. Bestetik, Piko Zulueta artistaren *Baga Itsasoa* erakusketa dago ikusgai egunotan, eta arrainontzietan, batez ere tropikale-tan, arrain gehiago sartu ditugu».

Sagardoaren Lurraldea elkarteak eskaintza enogastronomiko berezi batekin aurre egingo dio Aste Santuari; apirilaren 13tik 23ra, ohiko bisitaren osagarri, Euskal Herriko hiru gazta ezberdinen dastaketa –Idiazabalgoa, Erronkarikoa eta Iparraldekoa– egingo dute, sagardoarekin batera. «Sagardoetxera datorrenari, hiru gazta emango dizkiogu dastatzeko, eta bakoitzaren ezaugarriak azalduko dizkiogu. Ondoren, sorpresatxo bat prestatu dugu; txartel bat emango diegu, eta horrekin gure sagastian barneratu eta opari bat topatu beharko dute», azaldu du Leire Alkorta Sagardoaren Lurraldea elkarte-komunikazio arduradunak.



Bertako askok, opor egunetan kanpora joan beharrean, hurbileko planak egiteko aprobetxatzen dute»

Xabier Lasa

Aquariumeko marketin arduraduna

«Bezero eta jabearen arteko hurbiltasunak bereizten gaitu beste eskaintzetatik; jendeak asko eskertzen du hori»

Idoia Ezkurdia

Nekaturreko arduraduna

«Gure bezero gehienak euskal herritarrak dira, baina halako sasoi-tan madrildar eta katalanak asko igotzen dira»

Leire Alkorta

Sagardoaren Lurraldea elkarte-a

Sagardoetxea museoa bisitatu ondoren, sagardotegira joaten dira bisitari asko, eta horietako gehienek pakete berean hartzen dituzte bi gauzak. «Konturatu gara, urtetik urtera, Aste Santuan, zubietan eta horrelakoetan asko igotzen dela bisitari kopurua. Donostiara etortzen den jende askok ezagutu nahi izaten duela sagardoaren kultura eta sagardotegietako giroa».

Iazko Aste Santuko datuak ere eman ditu Alkortak: bisitarien %22,7, euskal herritarrak; %57, Espainiako Estatukoak, eta %20,2, Europako beste herrialdeetakoak. «Urtean zehar, bezero gehienak euskal herritarrak dira, baina halako sasoi-tan madrildarrak eta katalanak asko igotzen dira. Bizkaitarrek eta inguruko beste lurraldeetakoek ere baliatzen dituzte egun hauek sagardotegira etorri eta museoa bisitatzeko».

Bezeroen %60k hartu zuten sagardotegia eta museoa batzen dituen eskaintza iaz. «Jendeak, oporretan, gauzak erraz eta eroso egin nahi ditu. Gurera deitzen ba-

dute, guk bilatzen diegu sagardotegia. Bezeroa bikote bat den, lagun talde bat den edo familiarekin datorren kontuan hartuta, gu arduratzen gara sagardotegia bilatzeaz; eta, gainera, ez du ibili behar banan-banan deitzen, ea zein dagoen irekita, ea lekua dagoen, ea bazkaltzen ematen duten...».

Sektorean gero eta pisu handiagoa dute turismo eragileek *esperientziak* deitzen dituzten eskaintza bateratuek. Museo batera bisita, sagardotegian bazkaria, txalupan irteera, bisita gidatua, pintxo ibilaldia... Kultura, aisia eta gastronomia biltzen dira horietako gehienetan, eta, Ezkurdiak dioenez, arrakasta handia dute egun gutxirako etortzen diren bisitarien artean.

Nekaturrek badu bere eskaintza, Sagardoaren Lurraldeak ere bai, eta Aquariuma esperientzia horietako askotan agertzen da. «Jendeak eskatzen ditu halakak. Gustatzen zaio egun osoko planak egitea, eta ondo funtzionatzen dute. Gainera, promozioak dira, eta merkeagoa da sorta osoa», azaldu du Lasak. Bertakok ere egiten dituzten arren, bere-

ziki egoki ikusten ditu esperientzia horiek kanpotarrentzat: «Ez dute lurraldea ezagutzen, hizkuntza ere ez, ez dakite zer den interesgarria eta zer ez. Modu horretan, hiruzpalau jarduera egiten dituzte egun bakarrean; beraien kabuz eginda, askoz zailagoa suertatzen zaie».

Kostaldea zein mendia

Aste Santuan Gipuzkoara datorren turistak zer bilatzen duen galdetuta, denetarik dagoela azaldu du Ezkurdiak. Landa eremuak eta kostaldeak, bakoitzak bere bezeroak izaten dituela dio. «Udan, agian, gehiago betetzen dira kostaldean dauden etxeak, baina Aste Santuan berdin-berdin eskatzen dituzte landa eremuak zein kostakoak. Euskaldunak, batik bat, landa eremuko etxeetara etortzen dira, lasaitasun bila, naturarekin kontaktua izatera, mendi ibilaldiren bat egiteko asmoarekin, eta familiak dira asko. Horiek ez dira asko urruntzen ostatu hartu duten tokitik, inguruan ibiltzeko joera dute».

Beste bezero mota bat da landa gunean ostatu hartu eta handik



Barnealderako joera gero eta handiagoa den arren, Donostiak jarraitzen du bisitari gehien erakartzen. JON URBE / ARP

hiriburuetara edo kostaldera joaten dena. «Distantziak motzak dira hemen, edozein herritatik berehala iristen zara Donostiara edo kostaldera, eta baita Bilbo edo Gasteizera ere. Estatuko bisitariak egin ohi dute hori».

Ezkurdiak dioenez, beste bezero mota bat ere bada landa etxeetan. «Landa gunean hartu nahi dute

ostatu, naturarekin kontaktuan egon nahi dutelako, mendia maite dutelako; eta asko baloratzen dituzte gure tradizioak, hizkuntza, arkitektura, kultura... Batez ere atzerriarrak dira, Herbehereetatik, Belgikatik, Erresuma Batutik etorritakoak, eta oso sentsibilizata daude ekoturismoarekin, iraunkortasunarekin. Beraien he-

rrietan badute gurearen moduko eskaintza, eta bidaiatzen dutenean antzeko zerbait bilatzen dute».

Bisitatzeko toki interesgarrien hurbiltasuna bilatzen dute bisitari askok, baina nekazaritza turismoan bezero eta jabearen arteko hurbiltasuna ere bai. «Horrek bereizten gaitu beste eskaintzetatik; jendeak asko eskertzen du hori».

DISCOVERY SPORT

ABENTURA. DNAⁿ DARAMAGU.



29.900 €-tik HASITA*

Bidea amaitzean hasten da gozamina. EUROLANen bigarren eskuko turismo eta orotariko autoetan aukera zabala dugu. 15 urtez lanean dihardugu zure beharrei egokitutako zerbitzuak eskainiz.



eur lan

Donostia-Hernani errepidea (Galarreta pilotalekuaren ondoan)
Hernani (Gipuzkoa) • Telefonoa: 943 33 10 06 • <http://www.eurolan-taldea.com>

Discovery Sport gama. Kontsumo konbinatua: 4,7-5,3 l/100 km. CO₂ isuriak: 123-139 g/km.

*PSP gomendatua Discovery Sport eD4 Diesel 150 ZP 4x2 Pure eskuzkoarentzat: 29.900 €-tik hasita (BEZa edo IGIC, garraioa, sustapen deskontua eta matrikulatze zerga, eta IEMDT barne). Tipo orokorraren arabera kalkulatua dago IEMDT. Hala ere, aldatzeko da IEMDT-ri aplikagarri zaion tipoa, bizilekua dagoen erkidego autonomoaren arabera. Sustapen prezio hau FCA Capital España EFC, SAU-rekin finantzaturiko unitateentzat bakarrik da: betiere, kontratu baldintzen arabera, gutxienez 20.000 € finantzatzuz gero, gutxienez 24 hilabetea eta gutxienez 24 hilabeteko iraupena izanez gero. Eskaintza honek 2017-04-30 baino lehen eta penintsulan eta uharteko lurraldean matrikulaturiko autoentzat bakarrik balio du. Baliteke irudiko autoa ez izatea eskaintza honi dagokiona.

«Esperotakoa gaindituta eta asebeteta itzultzen dira turistak etxera»

Maite Cruzado • Gipuzkoako Turismo zuzendaria

Turismoa sasoiz kanpoko ere izatea, nazioarteko turistak gehitzea eta bisitariak lurralde osora barreiatzea dira Turismo Zuzendaritzaren helburu estrategikoak. Hiru arloetan datuak onak direla dio Cruzadok.

Eider Goenaga Lizaso

Aste Santuko oporren atarian, Maite Cruzado (Donostia, 1956) Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo zuzendaria baikor agertu da okupazio datuei begira. Azken urteetan goranzko joera izan dela dio, eta datuak egonkortzea espero dutela.

Zein da Aste Santuak Gipuzkoako turismoan duen pisua?

Egun gutxi diren arren, turismoaren agertokian puntu gorenetakoa bat izaten da Aste Santua. Eta, aldi berean, sasoiz kanpoko turismoaren datuek gora egin duten neurrian, pisu hori egonkortzen ari dela dirudi, eta hori da aurten espero duguna. Guretzat oso ona litzateke iazko okupazio datuak, %85 ingurukoak, berdintzea. Eta, aldi berean, nahiko genuke bisitari atzeritarren okupazioan ere iazko datuak berdintzea.

Datu onak izan ziren?

Estatuko turistak izan dira, historikoki, Aste Santuan gehien etorri izan direnak, baina jada iaz hasi ginen turista atzeritarren gorakada handi bat sumatzen; atzeritarren kopuruak %11 inguru egin zuen gora, eta estatukoak aurreko urteko maila berean gelditu ziren. Azken hilabeteetako joera ikusita, ematen du nazioarteko tze horretan gorantz joango gare-

la. Bisitari gehienak hurbilekoak izateak badu, gainera, bigarren ondorioa, eta da hurbiltasunak aukera ematen diela erreserbak azken egunera arte atzeratzeko eta, ondorioz, zaila dela aurrez zehaztea okupazioa zenbatekoa izango den.

Eguraldia ere faktore garrantzitsua da Aste Santuan.

Bai, zalanza gabe, eta gerta daiteke azken unean guk ditugun aurreikuspenetan atzera egitea,

«Gipuzkoako ekonomian BPGaren %7,5 ingurukoa da turismo sektorearen pisua»

oraindik erabaki gabe daudenek ez etortzea erabaki dezaketelako. Baina, ostalaritzako baliabide turistiko ezberdinekin kontaktuan gaude, eta aurreikuspenak oso onak direla esaten digute.

Nekaturrekoek martxoaren 28rako %90 inguruko erreserbak zituzten Gipuzkoan.

Bai, nekazaritza turismoan badi-rudi iazko urtea gaindituko dutela; eta 2016ko Aste Santua jada oso ona izan zen. Guretzat oso elementu garrantzitsua da hau, landa turismoa tresna ezin garrantzitsuagoa baita turistek joan-etorria Gipuzkoa barnealdera ere

bideratzeko. Nik nabarmenduko nuke nekazaritza turismoetako okupazioa, 2010etik aurrera, etengabe joan dela haziz, eta oso-maila altuetan ibiltzen dela.

Bestalde, apartamentuetan os-tatu hartzen dutenen erreserbak ere oso maila altuan daudela jakinarazi digute. Bai apartamentuetan eta bai nekazaritza turismoan etengabe joan da haziz okupazioa azken urteetan.

Hoteletan baino gehiago?

Bueno, kontuan hartu behar dugu hoteletako okupazioa iaz oso altua izan zela, batez ere Donostian, eta kostaldean. Iazko kopuruak hobetzeko, beraz, oso tarte txikia dago. Kopuru horiek egonkortzea ondo legoke, eta guretzat oso inportantea da okupazio altu horiek lurralde osora zabaltzea. Izan ere, turismoa urte osora zabaltzea, nazioartekotzea eta turismo arloko datu onak Gipuzkoa osora hedatzea dira Turismo Zuzendaritzaren helburu estrategikoak.

Helburu horrekin jarri zenuten martxan Explore San Sebastian Region kanpaina. Nolako balorazioa egiten duzue?

Marka turistiko honen helburu nagusia turismoa erakartzea da, baina, batez ere, Donostiak mundu mailan duen erakarmena eta izen ona baliatzea bisitariak lu-



GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

rralde osora eramateko, eta turismoaren banaketa orekatua lortzeko. Gipuzkoan distantziak hain txikiak dira, 40 minutuan edo gutxiagoan giro eta paisaia oso ezberdin batean egon zaitezke: kostaldetik mendira, hiritik landa gunera... Urtebetean ikusi dugu estrategia hau sendotu eta egonkortu egin dela, ari garela emaitzak jasotzen. Gainera, eskualdeek bere egin dute kanpaina, eta baita sektore pribatuak ere. Beraz, ariketa kolektibo honek erakutsi digu hori dela aurrera egiteko giltza, elkarlanean aritzea.

Bestalde, sektorearen azken urteotako kezka izan da, bisitari kopurua hazi arren, gau kopurua jaitsi egin dela. Hor ere badago aldaketa?

Bai, hori da sektorearen gorakada adierazten duen beste faktoreetako bat. Eta guretzat helburu garrantzitsua da. Bisitariak zenbat eta denbora gehiago egin gurean,

aukera gehiago ematen digu gure lurraldearen aberastasuna eta gure eskaintza ezagutarazteko: paisaia, natura, gastronomia, produktua, ondarea, historia, kultura... Gipuzkoara etortzen diren turistek, joaten direnean, esperotakoa bete eta gainditu egin dutela adierazten dute, eta asebeteta itzultzen dira etxera. Hori oso inportantea da, horrek esan nahi baitu gure lurraldearen enbaxadore izan daitezkeela beste batzuen aurrean, guri buruz ondo hitz egingo dietela senide, bizilagun eta lagunei. Eta gure eskaintza ezagutarazteak duen beste helburu bat da bisitariak bertara itzultzeko beharra sentitzea.

Turismoak zenbateko pisua du Gipuzkoako ekonomian?

Gipuzkoako ekonomian barne produktu gordinaren %7,5 ingurukoa da turismo sektorearen pisua, eta baieztatu daiteke sektoreak garrantzi handia hartu duela gure ekonomian. Bai aberastasun sortzaile gisa, bai enplegu sortzaile gisa. Oraintxe egin berri dugu Gipuzkoako turismo sektorearen enpleguazoka, Ficoban, eta emaitza oso interesgarriak izan dira: enpresa pribatuen arteko sinergiak sortzeaz gain, azokak iraun duen bi egunetan 3.900 curriculum entregatu dira. Beraz, pozik egoteko moduan gaude.

Ildo horretan, Turismo Zuzendaritzarentzat helburu oso garrantzitsua da sasoiz kanpoko turismo hori, enplegu horren aldi-batekotasuna gainditu eta egonkortasuna lortze aldera.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia

DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Udaberriko egun hauek



IRITZIA
Leire Narbaiza



Umetan udaberria izaten zen gure idazlane-tako gaia. Irakaslea gelan sartu eta esaten zigun urtaro honen gainean idatzi behar genuela. Imaginatzen dut orrialdeak lorez eta txoriz beteko genituela, baita ostarkuz ere, jakinekoea baita sasoi idealizatua dela.

Agian horregatik, martxoaren erdi aldetik aurrera kantatzen dugu ahots betez Zea Mays-en *Negua joan da ta*, arao bat balitz legez, jakin dakigulako oraindik ere hotza, haizea eta ekaitzak jasan beharko ditugula.

Euskal Herrian aurtengo udaberriko egun hauek inoiz baino

udaberriago direla esango nuke. Primadera garai nahasia da, baina, era berean, esperantzaz betea. Sentimenduak azal-azalean dauzkagu. Halaxe gaude motibo askorengatik. Aurten Korrika urtea ere bada, gainera.

Bai, Korrika dabil gure errepideetan, eta zoro kuadrilla horrek antxixiketan egiten duen bitartean, besteoi begiak betetzen zaizkigu malkoz, gure hizkuntzaren alde etengabe norbaitek diharduela edozein txoko galdutan pentsatze hutsarekin.

Malkoak eta sentimenduak ere azaleratzen zaizkigu udaberri guztietan Durangon eta Otxandion. Aurten, batez ere, bonbar-

daketen laurogeigarren urteurrena oroitu —ez ospatu, mesedez!— dugulako. Durangaldeko ekitaldiez gain, aurtun lehenengoz omendu dira euren etxe eta herrietatik, Gipuzkoatik, frankistek egotzi zituztenak, batez ere emakumeak eta umeak. Hauena esaldi eta makillatutako sufrimendua izan da luzaroan, andreak eta haurrak izanda errazago zela, edo gutxiago interesatu delako, beharbada. Ihes egin zutela esaten zen, baina bota egin zituzten, goian zerua eta behean lurra. Begi ertzetan malkoa, berriro ere.

Eta sailean etorriko zaizkigu beste bonbardaketa eta erreketen konmemorazioak: Eibar, Elgeta,

Elorrio, Gernika, Bilbo... gerra galdu izanaren oroitzak. Horrela urterik urte. Negarrik negar.

Baina bedatse honek izango du malkoak xukatzeak aukera emango digun ekitaldi ezin garrantzitsuagoa, bihar bertan, Baionan. Bakearen Artisauek lortuko dute lortzeko gaitza zirudiena, beritasun itxaropentsu bat. Izan ere, Euskal Herri kontinentaleko euskaldun hauen inplikazioari esker beste urrats bat egingo da aurrera. Begira diezaiozun ekitaldiari begi espainiar edo frantsesekin: Espainia-ko barne arazo bat, Frantziako hegoaldea zipriztintzen zuena, eta konponduko da esku hartu dutelako frantses batzuek, arazoaren parte ez zirenak. Dena musu-truk! *Gratis et amore!* Bitxia bada, behintzat. Euskaldunon begiekin begiratuta, maistraki egina. Ezinbestekoak zaizkigu artisauek.

Gainera, aurkitu dute modu irudimentsu bat desarmea gauzatzeko, estatuetako arduradunek ezingo diotenari ezetzik esan, orain arte bezala. Armak entregatuta, irudikatuko da bakearekiko konpromiso irmoa. Historia ilun eta hits baten amaieraren azken-aurreko urratsak. Hemen ere begiak lausotuko zaizkigu, emozioz, batez ere falta ditugunak gogoan.

—Eta bitartean, aitatutako ekitaldi eta oroitzak guztiak egiten direnean, zoro batzuek jarraituko dute korrika kilometroak egiten Euskal Herriko edozein bazterretan euskararen alde—.

Eta segituko dugu kantatzen *Negua joan da ta* udaren esperotan, lore eta txoriz beteko zaigulakoan esperantzaren leihoa, jakin arren oraindik ere elurra egin lezakeela, hotzak eta ekaitzak eraso liezagukeela, udaberria beti delako urtaro nahasia.

Irudia • Donostia



Sentimenduek eztanda egin dute

Etzi iritsiko da Korrika Iruñera, eta aste honetan Gipuzkoan barrena egin ditu hainbat kilometro. Asteartean sartu zen, Lizartatik, eta arratsaldean iritsi zen hiriburura —irudian, Donostian, Aintzane Encinas eta Maite Azkoaga Realeko futbol eta belar hockeyko jokalariek, lekukoa eramaten—. Asteazkenean Orio, Zarautz, Azpeiti eta Mutriku inguruan ibili zen Korrika, eta gaur eta bihar ere sartu-irtena egingo du Gipuzkoan. Gaur 22:43an da iristekoa Eibarrera, eta bihar 14:35ean utziko du herrialdea, Leintz Gatzagatik igarota. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Donostiako Udalak kendu egin du, dagoeneko, Europako Hizkuntzen Mapa

DONOSTIA • Kultur hiriburutzaren urtean Bagerak hizkuntzen inguruan sentsibilizazioa eta hausnarketa sustatzeko egin zuen proiektuetako bat izan zen Europako Hizkuntzen Mapa, Tabakalera kanpoaldean egon dena. Urtebete geroago, kentzea erabaki du Donostiako Udalak. Beste kokaleku batean jartzea adostu dute Bagerak eta udalak.



«Balizko aukeren azterketa fasean dago oraindik hiriko zezenketen inguruko kontsulta. Madrilgo ezezkoaren ondoren, iritziak biltzen ari gara orain»

Eneko Goia
Donostiako alkatea

37.471

GIPUZKOAN LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONEN KOPURUA

Jaitsiera beti izaten da ona langabezia tasari dagokionez, eta, gutxi bada ere, Gipuzkoan lanik gabe daudenen kopuruak behera egin zuen martxoan. Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoaren datuen arabera, martxoan 37.471 gipuzkoar zeuden langabezian, otsailean baino 377 gutxiago. Iaz, garai berean, 41.766 gipuzkoar zeuden lanik gabe.

«Egun seinalatua da gaurkoa. Behin betiko pausoa da [errauste planta egiteko]. Europako ingurumen zentrorik aurreratuenak izango da»



Jose Ignacio Asensio
Gipuzkoako Ingurumen diputatua



GIPUZKOAKO HITZA irakurleen eskutizak plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarteak barne, eta **GIPUZKOAKO HITZA**ko mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Gipuzkoako Hitza, Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain. Eskutizak Internet bidez bidaltzeko: gipuzkoa@hitza.eus.

Ariane Vierbücher Idiazabal

Psikologia ikasketak egin ditu Idoia Iturbe idiazabaldarrak (1993), Euskal Herriko Unibertsitatean, Donostian. Gradu amaierako Mikromatxismoak Lantzeko Ahalduntze Programa lanari esker, Francisca de Aculodi lehiaketako saria jaso du. Gaur-gaurkoz, Osasun Psikologia Orokorra unibertsitateko masterra egiten ari da, ikasketak osatzeko asmoarekin.

Francisca de Aculodi lehiaketako saria eskuratu duzu. Nola azalduko zenuke sariaren garrantzia?

Euskal Herriko Unibertsitateak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren barruan eman duen saria da, gradu eta master amaierako proiektuetan genero ikuspegia sustatzeko eta gai hori lantzen duten lanak bultzatzeko eta ikusarazteko.

Sari guztiak izango dira ongi etorriak, noski, baina zer sentitu zenuen jasotzeko unean?

Oso egun berezian egin zuten ekitaldia: martxoaren 8a zen, Emakumeen Nazioarteko Eguna. Donostiako Zuzenbide fakultatean izan zen ekitaldia, eta oso pozik hartu nuen saria. Oso ekitaldi polita izan zen niretzat. Horrez gain, sariren bat jasotzen nuen lehenengo aldia zen, eta horrek are sentipen bereziagoak sorrarazi zizkidan. Irakasleak deitu zidanean, orduan jada pentsatu nuen saridunetako bat izango nintzela, agian, baina ez nuen espero halako saririk jasotzerik. Poz handia hartu dut, egindako lanari indarra ematen diolako.

Zergatik aukeratu zenuen esku-hartze programa bat egitea?



ARIANE VIERBÜCHER

«Mikromatxismoak uste baino barneratuago ditugun gizartea gara»

Idoia Iturbe • Psikologoa

‘Mikromatxismoak Lantzeko Ahalduntze Programa’ lanari esker, Idiazabalen bizi den psikologo gazteak Francisca de Aculodi lehiaketako saria jaso zuen Emakumeen Nazioarteko Egunean.

Urte askoan, gaixotasunei jarri izan die arreta psikologiak; patologiak, sintomak... Horiek aztertzen zituen, bereziki. Psikologia positiboak, ordea, beti erakarri

izan du nire arreta; gauza onak bilatu eta bultzatzen dituen teknikak lantzeak, alegia. Emozio positiboek eragina dute gure osasunean, eta oso baliagarria da pertsona bakoitzaren beste ikuspegi batzuk lantzeko ere. Adibidez, hazkuntza pertsonala landu daiteke teknika egokiak erabiliz. Dena den, gaiari sakon heldu aurretik, ez nuen oso argi zeren inguruan egingo nuen lana. Hortaz, tutorea zein izango zen aukeratu nuen lehenengo.

Zein helduleku aurkitu zenion lanari garatu ahal izateko?

Egun ez dago oso zabaldua patriarkatuaren kulturak eragiten duen mikromatxismoen gaia, nahiz eta emakumezko askoren egunerokotasunean eragin nabarmena daukan. Mikro-abusu horiek gizartearen eta senideen eskakizunak itxuraz zailtasun eta kexarik gabe betetzen dituzten herritarrei zuzenduta daudenez, eta horiek oharkabean onartzen dituztenez, mikromatxismoen kontuak ez du oihartzun handirik. Ondorioz, gizartea ez da be-

har beste asaldutzen. Jarrera horiek, beraz, dagozkien helburuak betetzen jarraitzen dute, modu ezkutu bezain eraginkorrean.

Gaur egun, oraindik, genero mailako botere desberdintasuna mantentzen da, eta emakumeengan hainbat ondorio eragiten

«Psikologia positiboak beti erakarri izan du nire arreta, gauza onak bultzatzen dituen teknikak lantzeak»

«Emakumeok herentzia femenino bat jaso dugu, rol jakin batzuk hartzen ditugu, eta horren jabe izan behar dugu»

ditu. Mikromatxismoak uste baino barneratuago ditugun gizartea gara. Hori dela eta, neurri batean edo bestean horren eragina paira dezaketen emakumeentzat da esku-hartze proposamen hau.

Hiru fasetan banatuta dago programa: fase psiko-hezitzailean, gai horren inguruko kon-

tzientziazioa areagotzea da helburua; ahalduntze fasean, haien errealitateaz jabetu, lanketa pertsonala egin, eta aldaketak gauzatzeko da erronka; eta, azken fasean, hausnarketarako eta bizipenak elkarrekin partekatzeke eremu bilakatuko den babes taldea eratuko da.

Zein bide egin nahiko luke programa honek?

Neurri batean edo bestean, mikromatxismoen eragina paira dezaketen emakumezko horientzat da esku-hartze proposamen hau. Alde batetik, parte hartzaileak ahalduntze prozesu batera bideratzea da asmoa. Hala, norbere buruaren, bizimoduaren eta inguratzen duen errealitatearen analisi kritikoago bat egiteko aukera izango du, bai bakarka eta baita taldean ere. Haien bizimoduarekiko gogobetetasun mailaz eta egunerokotasunean bizi ditzaketen zenbait egoera bidegabek bez gogoeta egitea eta kontzientzia hartzea da helburua. Hainbat tresna emango zaizkie prozesu horretan, norbere buruarekiko eta bizitzarekiko boterea indartu eta mikromatxismo egoerei aurre egiteko. Era berean, emakume horien ongizate maila sustatzera bideratuta dago esku hartzea, modu zuzenean zenbait saiotan landuko diren gaiekin, eta, zeharka, esku hartze horretan parte-hartze berarekin.

Izan al duzu aukerarik lana praktikan jartzeko?

Bai, eta oso esperientzia polita eta aberasgarria izan da. Abadiñon egin genuen programa; 2016ko azaroaren 23an hasi ginen, eta 2017ko otsailaren 15ean amaitu genuen. Dozena bat lagun elkartu ginen bi hilabete eta erdi horietan; ama dira horietako batzuk. Programaren lehen bi faseak bakarrik landu genituen; hasieran, uste baino denbora gehiago behar izan genuen autoestimua- ren gaia lantzeko, behar hori zegoela iruditu zitzaigulako. Non gauden eta nora iritsi nahi dugun zehaztea izan da programaren helburua. Azkenean, emakumeok herentzia femenino bat jaso dugu, rol jakin batzuk hartzen ditugu, eta horren jabe izan behar dugu.

Pentsatu al duzu gizonezkoentzako programaren bat egitea?

Programan parte hartu zutenen artean askok egin zuten proposamen hori, eta, agian, egin daiteke zerbait etorkizunean. Oraingoz, emakumeentzat antolatuta dugu, behar hori ikusi dugulako. Ez dugu errudun sentitu behar horregatik; oraindik ere egiteko asko dago berdintasuna lortzeko.

www.inmosalbide.com

SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak

Zarautz. Itxasmendi. 3 Logela. Sukaldea. Jan gela eta sala. Trastelekua. Kafefazioa gasarekin. Oso Prezio Ona. **234.400 euro!**

Zarautz. Azken Portu. 3 Logelako etxea. Balkoi luzea (9m) egoaldera. Eguzkitsua. **240.000 euro!**

Zarautz. Kiriki Kalea (Alde Zaharra). 3 Logelako etxea. Trastelekua, Gasa eta Igogailua. **250.000 euro !**

Zumaia. San José Kalean. Sartzeko moduan. 3 Logelako etxea. Igogailurik gabe (hirugarrena). Oso eguzkitsua. **150.000 euro!**

Zarautz. Musika Plazan. 100 m2 –ko etxea. Gustiz berrituta. Igogailu eta Gasarekin. Oso eguzkitsua. **360.000 euro!**

Zarautz. Aritzatalde. Polikiroldegia ondoan. 3 logelako etxea. Trastelekua eta Garaje itxia. Oso eguzkitsua. 4 garren solairuan. **440.000 euro!**

Zarautz. Vista Alegre hasieran. 3 Logelako etxe gustiz erreformatua. **330.000 euro!**

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96

Iker Irribarriak eta Beñat Rezustak Binakako Txapelketako finala jokatuko dute etzi. Mikel Unanue eta Jokin Errastik osatutakoa da txapela jantzi zuen azken bikote gipuzkoarra.

«Jokin, atera heuk sakea»

Unai Zubeldia Donostia

Gogoan izango ez dugu, ba!». 1998ko otsailaren 21eko argazki bati begira daude Mikel Unanue (Donostia, 1968) eta Jokin Errasti (Azkoitia, 1966). «Hau da hau! Gazteago geunden orduan, Jokin...». Barru-barrutik atera zaio hausnarketa Unanueri. «Oroitzapen politak dauzkatz», hasi da Errasti. «Baina urruti gelditu da jada partida hura», lagun du dio donostiarrak. Jokin Etxaniz eta Aitor Elkorok 22-21 mendean hartuta –haiek ere gipuzkoarrrak–, Unanuek eta Errastik osatutako bikotea da Binakako Txapelketa irabazi duen Gipuzkoako azken bikoa; 2000n galdu egin zuten, Titin III.a eta Lasa III.aren aurka, 22-19.

Ondoren, Juantxo Koka txapeldun izan zen 2003an, Ruben Belokirekin bikotea osatuz; eta Oier Mendizabal ere bai, 2008an, Aimar Olaizola aurreko koadroetan zuela –atzelariak ordezko gisa ekin zion txapelketari–. Baina Unanue eta Errastirena da txapela jantzi duen azken bikote gipuzkoarra. 19 urteko lehortea errotik eteteko aukera polita daukate etzi Irribarriak eta Rezustak, nagusi izan baitira txapelketa guztian. Oinatz Bengoetxea eta Mikel Larunbe izango dituzte parean, Bilboko Bizkaia pilotalekuan.

Errastik gogoan dauka 1998koa «oso final gogorra» izan zela. Datu bat gaineratu dio hausnarketari: «Lehengoa eman zidaten datua: 1.086 pilotakada izan ziren. Gaur egun ezinezkoa da halakorik irudikatzea». Atzera eginda, Unanuek ekin dio duela 19 urteko finalaren kontaketa: «Oso eroso hasi ginen, 12-3 uste dut, baina gerora asko gogortu zen partida». Errastik atzean «nagusi» ekin zion finalari. «Pilota gozatuz eta dominatuz hasi ginen, baina desberdinak ziren orduko pilotak, gastatuz joan ziren, eta asko gogortu zen amaiera».

Biek ala biek arazo fisikoekin

amaitu zuten partida. «Hanketako bikietan gainkarga izan zuen Jokinek», gogoratu du donostiarrak, «eta bizkarrean zuntz haustura izan nuen nik. Ezin nintzen mugitu ere egin». 20-21 atzetik jarri, eta «akabo» pentsatu zuten biek. «Baina Elkorok, hirugarren koadrotik, kanpora bidali zuen pilota, eta...». Polita izan zen azken tantoaren aurreko hizketaldia. «Zegoen pilotarik biziena kantxaratu, sakea luze atera, eta, eskura bazetorkidan, tantoa amaitzeko esan zidan Jokinek». Baina azkar erantzun zion aurrelariak: «'Jokin, badakik ezin dudala ezer egin. Atera heuk sakea', esan nion». Barrez amaitu dute



«Oso final gogorra izan zen 1998koa; 1.086 pilotakada izan ziren. Gaur egun ezinezkoa da halakorik irudikatzea»

«Irribarriak gaitasun handia dauka aurkarien atzelaria egurtzeko, eta Larunbek ez du lortuko jokoan nagusitzerik»

Jokin Errasti
Pilotari ohia

«Finalean, hanketako bikietan gainkarga izan zuen Jokinek, eta bizkarrean zuntz haustura nik. Ezin nintzen mugitu»

«Hirugarren-laugarren koadrotik sartu beharko du Oinatzek, eta hortik zaila da Irribarriari min egitea»

Mikel Unanue
Pilotari ohia

finala kontatzen: «Sakea atera, Elkorok eraman, eta neukan guztiarekin egin nuen errematea». Erdi-erdi joan zen Unanueren pilota. «Baina zabalera joanda zegoen Jokin [Etxaniz], eta hantxe amaitu zen finala».

Oroitzapenen kaxatik gauzak atera eta atera, ospakizunei ere egin diete tarte txiki bat biek. «Inauteriak ziren», hasi du kon-



Mikel Unanue eta Jokin Errasti, aste honetan, elkarri eskua helduta. GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

taketa Unanuek. «Eta lagunekin eta afaldu, eta emazteekin batera Donostian amaitu genuen laurok». Zehatz ez dute gogoan nondik nora ibili ziren; ez dute argitu, behintzat. «Baina uste dut hurrengo egunean eguerdi partean-edo itzuli ginela etxera». Zintzo aitortu du azkoitiarrak.

Unanuek 29 urte zeuzkan txapel hura jantzi zuenean –aurretik hiru final zeuzkan galduta–, eta ordurako 32 zeuzkan Errastik. Garaiak aldatu diren seinale, oraindik 19 urte besterik ez dauka Irribarriak –buruz buruko egungo txapelduna da–, eta 24 dauzka Rezustak. «Guri asko kosta zitzagun oreka lortzea», azaldu du donostiarrak. «Baina iristerako sartu dira hauek txapelen lehian. Irribarriak badaki zer den txapel handi bat janztea, eta Rezusta finalean sartu zen iaz [Irujok min hartu zuen gero]. Ondo bidean, aukera

gehiago ere izango dituzte biek».

Errastiren buru alde, Zuberoa jatatxeko afaria... Biak barrez hasi dira kazetariak galdera egiterako. «Bazegoen zerbait kontu horrekin, bai», xaxatu du ondokoa Unanuek. Atzelariak eroso eraman du errestoa. «Kazetari baten kontua izan zen dena. Finalera iritsiz gero ilea motz-motz eginda joango nintzela esan nion nik, eta



Errasti eta Unanue, pozez zorutzen, 1998ko finala irabazi berritan. J. MANTEROLA

ez nintzela ausartuko erantzun zidan berak». Azkoitiarrak irabazi zuen apustu hura. «Orain ez daukat makina pasatzen ibiltzeko premiarik!».

Irribarria-Rezusta, faborito

Beste kontu askotan bezala, garai batekoa eta egungoa alderatzeko tentazioari heldu diote biek. «Beste estilo bateko jokoa zen ordukoa. Jokatzera bideratuta zeuden pilotalekuak. Garai hartan, Bergaran edo Eibarren ez zuketen onartuko gaur egungo jokorik». Azalpena gehixeago zehaztu du Errastik. «Ez zen onargarria izango pilotari batek hamabi pilota huts egitea, edo bigarren koadrotik ezker gantxo huts egin, eta hurrengoan berriz huts egin, eta hurrengoan berriz airez sartu, eta...».

Unanueren hitzetan, «oso joko klasikoa» zen ordukoa. «Nik beti jartzen dut Errastiren edo Tolosaren adibidea. Asko agintzen zuten. Gaur egun, agian, aurrelari batek sotamanoz pilota txapapera bidali, buelta erdia eman, eta eskua altxatzen du barkamena eskatuz bezala. Bi horiekin ez zen halakorik gertatuko».

Etziko finalari helduta, Irribarria eta Rezusta «nabarmen faborito» direla uste dute biek. «Irribarriak gaitasun handia dauka aurkarien atzelaria egurtzeko, eta Larunbek ez du lortuko jokoan nagusitzerik. Aukerako pilotekin, berriz, izugarri jokatzen du Rezustak». Errastirekin erabat ados dago Unanue. «Hirugarren-laugarren koadrotik sartu beharko du Oinatzek, eta hortik zaila da Irribarriari min egitea».



Leintz Gatzaga, goitik hartutako irudian; herri txikia baina oso bizia da. JAIZKI FONTANEDA / ARGAZKI PRESS



BERRIA

«Herri txikietan kosta egiten da gazteek ardura hartzea; ausardia behar da»

Eugenio Otsoa

Leintz Gatzagako alkate ohia

U. Z.

Lau legealdi alkate karguan igarota, Leintz Gatzagaren sekretu gehienak badakizki Eugenio Otsoak (Arrasate, 1951). Laguntzeko prest beti, Gatz museoarengatik ingurua goratu du bereziki.

Alkate ohia baino hoberik ez dago, ziurrenik, herri baten nor-tasunaz hitz egiteko...

Jende asko ezagutu ahal izan nuen karguan izan nintzen bitartean, eta gauza askoren lekuko gara, bai. 1987an ekin nion lehen legealdiari, eta beste bi ere egin nituen jarraian; Polonia eta Mexikora lanera joan behar izan nuen gero, eta atseden txiki bat hartu nuen orduan; eta 2012tik 2015erako tartea izan zen azkena.

Itzalean ez zara oraindik ere alkate izango, ezta?

Ez, ez! Oso argi daukat hori. Herri txikietan kosta egiten da jende gazteak ardura hartzea. Ausardia behar da, eta pazientzia; entzuten jakin behar da. Hori bai, aholkuren bat eskatzen badidate, laguntzeko prest egongo naiz.

Leintz Gatzaga dezente aldatuko zen 1987an zu kargura iritsi zinenetik gaur egunera, ezta?

Historikoki, altxor handia da Leintz Gatzaga. Lehen hala zen, orain hala da, eta etorkizunean ere antzera gertatuko dela uste dut. Francoren ondorengo urteetatik ez da gauza askorik egin, baina ez da herritarren errua; ez dugu izan aukera handirik gau-

zak egiteko. Mendian behera lurjausi batzuk izan genituen, eta ikusten ez diren lan asko egin behar izan ditugu aurretik, mantentze lanak. Erabaki gogorak izan ziren, ekonomikoki garestiak. Herri polita da, 1331n sortua. Zazpi ate zituen herriko harresiak, %80k bere horretan dirau, eta %20 berritu egin zen. Niri egokitu zitzaidan hori.

Zer eskatuko zenioke Eneka Zankadari, egungo alkateari?

Gauzak ondo egiten ari direnez, beste lau bat urtean karguan jarraitzeko.

Gipuzkoan ba al dago beste herri-alkatearen irudiarekin buruhandi bat egin duenik?

[Barrez] Ez zen izan nire aukera, eta ezin, bada, ezer askorik esan. Arazo txiki bat dauka: pisu handia daukala, eta neuk ezin dudala hartu buruan.

Herriko zein txoko duzu bereziki maitea?

Herriaren historiari helduta, gatz museoarengatik ingurua aipatuko dut, denbora gutxi barru gatz egiteko gunea izango dela espero dudana. Oso gustura joaten naiz inguru horretara. Askatu egiten naiz; amesteko lekua da.



GIPUZKOA, BATETIK BESTERA

Leintz Gatzaga (59) ● Historiari helduta, gatz ustiatzen hasteko proiektua gorpuzteko bidean dira Leintz Gatzagan. Langabezia tasa «apala» eta hondakinen kudeaketa «eredugarria» goratu ditu alkateak.

Lehengora itzuli nahi dute herria

Unai Zubeldia

Historiari keinuka bizi da Leintz Gatzaga. Gatzaren ustiapenak eman dio sona herriari, baina baliabide ekonomiko horrek berak sortu izan ditu hainbat eta hainbat liskar, 1334, 1371, 1492 eta 1498ko suteak tartean. Arabaren muga-mugan, Gipuzkoaren hego-mendebaldean, Deba ibaia hantxe hasten da gorpuzten Bizkaiko itsasora bidean. 14,7 kilometroko eremua dauka, 600 metroko garaieran dago, eta 240 biztanle inguru dauka –99 urte ditu helduenak, Matilde Arresek—. Hogei kilometro eskasera dauka Gasteiz, eta 80ra Donostia.

Mende eta erdi luzez Arabaren zati izan zen Leintz Gatzaga, harik eta 1498an Gipuzkoak bereganatu zuen arte. Gipuzkoaren eta Arabaren arteko lotura horren isla, gasteiztarra dute egun alkatea: Eneka Zankada (1973). Hogeitaramatza Leintz Gatzagan bizitzen. «Eta, orain arte bezala udalari alderdi politikoetatik kanpo eusteko, alkate karguari heltzeko abagunea iritsi zitzaidan duela bi urte». Alkateaz gain, lau zinegotzi daude udalean. «Baina herri guztia daukagu atzean. Emakume taldea, gurasoena, erretiratuena, gazteena... Eurek ematen digute indarra jarraitzeko». Herriko alkatea izateaz gain, Zankada erizain arduradun gisa aritzen da Albertia Etxean, Miñanon (Araba),

eta irakasle moduan Egibide eskolan, Gasteizen.

Herria lehengoratuta, gatz ekoizpenaren proiektuan burubelarri sartuta dabil Leintz Gatzaga. «Aurten jada gure gatz ekoizten eta merkaturatzen hasia da helburua, Gipuzkoan ere badaukagutako gatz; oso gatz ona». Historikoki Leintz Gatzagari gertatu zaion bezala, gaur egun ere baliabide sozioekonomikoa litzaiteke gatz ustiatzea. «Onura ekarriko lioke herriari», zehaztu du Zankadak. «Proiektua gauzatuz gero, bizpahiru lanpostu sortuko genituzke, eta gehiago ere bai, agian, etorkizunean». Alkatearen hitzetan, ustiapen horrekin indarberritu egingo lirateke herriko jatetxe, nekazaritza turismo, hotel eta gainerakoak. Gaur egun, Gatzaren museoak biltzen du bere barnean herriak gatzarekin izan duen lotura. Baina, iraganari keinuka, museotik kalera atera nahi dute baliabide natural hori.

Herrian bertan eskola txiki bat daukate. «Bost ume dauzkagu, eta, matrikulazioen arabera, zortzira igoko ginateke datorren ikasturtean. Orain gutxi, Errumaniako familia bat etorri da herrira, lau urteko umetxo batekin, eta herriko eskolan dabil hura ere, arazorik gabe». Eskoriatzatik haur hezkuntzako gela desplazatu bat ere badaukate. Herriko Eskoriatzara joaten dira gero neska-mutikoak. «Ikastola eta eskola publikoa dauzkate han, aukerak». Aretxabaletara bideratzen

dituzte ondoren, institutura, eta Arrasatera azkenik, Batxilergora.

Etorkizun hurbilean beste lanposturen bat edo beste sortzeko helburua izanik ere, izatez langabezia tasa «apala» dauka Leintz Gatzagak. «Azken datuen arabera, 55 urtetik gorako inor ez dago langabezian. 25 urtetik 45era artean, bai, hor hiru emakumezko eta hiru gizonezko uste dut dardela langabezian, baina datuak ez dira txarrak». Gazteekin lan berezia egiten du, gainera, udalak. «Diru laguntzak baliatuta, beti saiatzen gara herrian langabezian dauden gazteei lana eskaintzen. Orain gutxi, esaterako, sei hilabetez museoan lanean aritu da Garazi Orobengoa herriko gaztea».

Kultur egitasmoie dagokienez, «txikiak baina mugimendu handikoak» direla argitu du Zankadak. Gatzaren Eguna ospatzen dute urrian. «Iaz, lehenengo aldiz, produktu ekologikoen merkaturia izan genuen egun horretan bertan»; artisauen feria izaten dute azaroan, San Millan Eguna; irailean izaten dira herriko jaiak; ekainean, Sanjoanak; uztailan, txirrindulari proba... «Ko-

rrikarekin ere bat egingo dugu [bihar igaroko da herritik, 14:35ean]; horren aitzakian, bertso afariak, zozketak, bat eta beste antolatzen ditugu... Mugimendurik ez da falta herrian».

Eskoriatzarekin lotura

Gasteizekin lotura zuzenik ez daukate garraioari dagokionez. «Baina autobus laguntzaile batzuk badauzkagu Eskoriatzara joateko, handik bertan dago Arrasate, eta hortik lotura zuzenak daude Gasteizera, Bilbora...». Autobus geltokia aldatzeko proiektua aurkeztu berri dute, «bide er-tzean gelditzen delako, eta haur-errentzat arriskutsua delako».

Hondakinen kudeaketan, ber- rriz, beste askorentzat «eredu» direla azpimarratu du Zankadak. «Konposta egiten dugu. Duela bi hilabete gai horren inguruko Eu-ropako jardunaldi bat izan zen Gasteizen, eta herrira etorri ziren, egunerokoaren berri izateko. Bir- ziklatzearen eta konpostaren datu handiak dauzkagu Leintz Gatzagan». Txikitasunetik, baina iraganeko izaerari eusteko asmo irmoa dauka Leintz Gatzagak.

ERRENTA2016
gipuzkoa.eus
902 100 040

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ORAIN
GIPUZKOA**

ZURE EKARPENAK, EGUNEROKOAN ONURA. GOGOAN HARTU.

Aurten, aurrekontuaren ia erdia bideratu da gizarte politika-
tara. Ekonomia sustatzea eta enplegua sortzea ere lehentasuna dira. Hori,
eta gehiago. Eta guztia, zu onuradun izan zaitez.



Aritz, zaraustarra.
Ikaslea.

- A** Adin txikiko 360 haurrei ostatu eman zaie harrera familietan.
- B** Gipuzkoako ezgaitasunaren arreta sistema, erreferente Europan.
- C** Haurren %80k kirola egiten dute Eskola Kirolari esker.
- D** 150.000 euro deskontutan produktu kulturalak erosteko, kultura bonuari esker.
- E** 335,7 km bidegorri Gipuzkoa osoan zehar.
- F** 1.080 leku Udalekuetan.

**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

#erronkarakoprest

Jon Arrizabalaga
Gernika. Lidergo Ekintzailea
eta Berrikuntza, 3. maila.

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA ARRASATE • APIRILAK 27 OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia	HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA ESKORIATZA • MAIATZAK 6 LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia
ORONA IDEO • APIRILAK 29 LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia	ARETXABALETA • MAIATZAK 6 LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia
GOIERRI • MAIATZAK 4 OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia	GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center DONOSTIA • MAIATZAK 13 LARUNBATA, 10:30 / Auditorium
ENPRESAGINTZA FAKULTATEA BILBAO • APIRILAK 29 LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia	
BIDASOA • MAIATZAK 18 OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia	
OÑATI • MAIATZAK 25 OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia	

www.mondragon.edu/prest

902 110 436

Amagoia Iban Donostia

Donostiako Viktoria Eugenia antzokia erabat beteta, eta film emaldiaren ondorengo solasaldia testigantza artean josita. Halaxe estreinatu zuten igandean Iban Gonzalezen (Arrasate, 1973) *Ama, nora goaz?* filma.

Igandeko Viktoria Eugeniako estreinaldiaz zer esango zenuke?

Pozez zoratzen nagoela. Bete-bete egin zen, eta guretzat oso aproposa zen lana plaza horretan erakustea, Gipuzkoan eta Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren barruan. Gipuzkoan gertatu zen giza eskubideen urraketa bat kontatzen dugulako. Viktoria Eugenia ez da nolanahiko plaza, eta erabat bete zen. Dokumentaleko emakumeek izugarrizko txalo zaparrada jaso zuten, eta filma eman osteko hizketaldian ere jende asko geratu zen. Oso ederra izan zen. Orain, beste bide bat egingo du dokumentalak.

Bide hori egiten hasita zaudete jada, gainera.

Bai. Bilboko Zinexit Elkarbizitzarantzko zinemaldian egin genuen aurrestrenaldia, azaroaren 16an, eta joan den ostiralean Malagako [Espainia] zinemaldian erakutsi genuen. ETBn ere emango dute. Orain, emakumeak kanporatu zituzten Gipuzkoako hamalau herrietan eman nahi dugu, baina beste herri batzuetatik ere hasi zaizkigu deitzen. Azkenean, dokumentala aitzakia bat izan behar da elkarrizketa hasteko, herriko kontuen inguruan hitz egiteko eta argi pixka bat ematen saiatzeko.

Filma erakutsi ahala, bertan ager zitezkeen pertsonak eza-gutzen hasiko zarete akaso. Herriatik bidali zuten jende gehiago ezagutzeko parada izango duzuela, alegia.

Bai, hori tipikoa da. Ikerketa prozesuan aritzen garenean, kostatu egiten da izenak lortzea. Gero, gure ikerketaren emaitza aurkeztu eta hedatzen denean, jendea ezagutzen dugu. Hori oso ona da. Hain zuzen ere, dokumentalaren helburuetako bat hori da: frankismoaren inguruko isiltasun hori apurtzea. Eta isiltasuna ez da dokumental baten aurrean bakarrik apurtzen. Isiltasuna etxeko sukaldean, herriko tabernan eta toki guztietan apurtu liteke. Guk sortutako zaratatik beste gauza batzuk pizten badira, gu pozik. Oso pozik.

Beren seme-alabekin batera egotzi zituzten emakume haien alabak elkarrizketatu dituzue dokumentalean. Duela 80 urte



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

«Gure dokumentala aitzakia izan behar da elkarrizketa hasteko»

Iban Gonzalez • ‘Ama, nora goaz?’ dokumentalaren egilea

Duela 80 urte frankistek Gipuzkoatik Bizkaira bidali zituzten ehunka emakume eta haurren exodoa ardatz hartuta osatu du Iban Gonzalezek ‘Ama, nora goaz?’ dokumentala. Igandean estreinatu zuen filma.

helduak ziren haiek hilak dira jada.

Bai. Garai hartako neskatilak elkarrizketatu ditugu. Batzuek 14 urte zituzten orduan, eta 94 egun. Beste batzuk gazteagoak dira, eta etxean kontatutakoak eta amarekin bizi izandakoak kontatzen dituzte. Askok bidean geratu dira, bai.

Baleukon urte dezente daramatragu memoria historikoarekin lanean, eta, pertsonalki, beti izan dut gogoia honelako zerbitu egiteko. Gizonen historia gizonek idatzi dute. Gu patriarkatu batean bizi gara, eta arlo honetan ere nabari da hori. Gutxitan kontatzen da emakumeen historia, eta, kontatzen denean, beste modu eta maila batean kontatzen da.

Gizonen ibilerak askoz epikoa-goak eta garrantzitsuagoak omen dira.

Bai, eta neuk ere landu izan dut epika hori. Gernika batailoia dokumentala, esaterako, oso epiko egin nuen. Inertziatzat egin nuen, akaso, baina lan honetan elka-

«Gutxitan kontatzen da emakumeen historia, eta, kontatzen denean, beste modu eta maila batean kontatzen da»

«Frankistek ondo egin zuten euren. Besteren bizipenak ezabatzen eta berenak inposatzen asmatu zuten»

rrizketatu genituen emakumeen entzun, eta izugarria iruditzen zait beren lana eta beren bizi esperientzia. Lehendabiziko elkarrizketa egiten hasi orduko, do-

kumentalerako plana aldatu zitzaidan, guztiz. Zenbat sufritu zituzten emakume haiek, zenbat aldiz altxatu ziren, eta zeinen apalak ziren. Diren. Euren apaltasun mailan jartzen saiatu eta hitza beraietara ematea beste aukerarik ez nuen ikusi.

Fikzio lizentzia bat hartu duzu, hala ere.

Bai, istorioari haria emateko, bi aktore erabili ditut. Baina elkarrizketatutako emakumeen apaltasun horri erantzuten saiatuz beti.

Proiektu hau ezin da ulertu Joseba Esnal zumaiarraren ekarpenik gabe, ezta?

Ez. Dokumentalean agertzen den Lore Albizuren semea da. Orain dela hemeretzi urte hasi zen Joseba kontu honen inguruan ikeritzen. Pelikula bat egiteko gogoia

Herriz herri erakusten hasiko dira orain

➤ Igandean Donostian estreinaldi ofiziala egin ondoren, herriz herri erakutsiko dute orain *Ama, nora goaz?* dokumentala. Emakumeak eta haurrak egotzi zituzten Gipuzkoako hamalau herrietan ematea dute helburu Baleukokoek. Beste hainbat herritatik ere hasi omen zaizkie filmaren inguruko informazioa eskatzen.

Hainbat emanaldi lotuak dituzte dagoeneko: Elgoibarren, hil honen 20an eskainiko dute; Zarautzen, 27an; Azkoitian, 28an; Azpeitian, maiatzaren 4an; Mutrikun, maiatzaren 25ean. Zestean eta Zumaian ere emango dute, baina data erabaki gabe daukate oraindik.

ere sortu zitzaion, baina ez zuen aukerarik eduki gauzatzeko. Orain dela bi urte, egunkarian Siriako errefuxiatuei begira, amak esan omen zion: «Geu ere horrelaxe ibili ginen!». Hortik sortu zitzaion berriz ere gaiari heltzeko gogoia. Baleuko eta bera elkartu ginen, eta halaxe izan da. Ideiaren bultzatzailea Joseba izan da, bai.

Etxean abertzaleak zein ezkerrekoak izateagatik egotzi zituzten emakume haiek. Nola agertu duzue kasuistika hori zuen lanean?

Abertzale etxeetakoak dira denak, baina ez nituzke denak zaku berean sartu nahi. Egia da inguru batekoak bakarrik agertzen direla esan daitekeela, baina ezinezkoa zitzaigun dena kontatzea.

Gipuzkoatik botatako emakumeen historia kontatu duzue. Euretako gehienek Gernikako eta Bilboko bonbardaketak, erbesteak eta II. Mundu Gerra nozitu zituzten.

Bai. Bide desberdinak egin zituzten, eta, dokumental honetan elkarrizketatutako emakumeen birtutez, haiei denei aitortza eta omenaldia eskaini nahi zaie.

Bere bizipenen garrantziaz jabetu gabeko emakumeak ere eza-gutuko zenituen.

Isiltasuna enkistatuta dago gure herri honetan. Frankistek ondo egin dute beren lana. Besteren bizipenak ezabatzen eta berenak inposatzen asmatu zuten. Horri matxismoa erantzen badiotzu, atera kontuak! Horregatik, isiltasun hori haustea ez da erraza gertatzen beti. Barruan min handia daukaten pertsonak dira. Eta, hala ere, aurre egiten ikasi dute.



Juncal Alfonso, Otzazkiko kidea, erakusketa muntatzen; galeria horretan, bazkideen lanez gain, beste hamarren bat erakutsiko dituzte. ASIER PEREZ-KARKAMO

Hondarribia-Katsikas errefuxiatuen aldeko elkarteak 63 artistaren lanak bildu ditu. Elkartasuna zabaltzeko ez ezik, artistak ezagutarazteko baliatu dute aukera.

Artistak deskubritu dituzte

Asier Perez-Karkamo
Hondarribia

Aurkikuntza artistiko handia egin dute Hondarribian, ezustean, bilatugabe. Greziako kanpalekuetako errefuxiatuen alde ekintza bat prestatzen ari zirela, herrian 63 artista, behintzat, badaudela deskubritu dute. Sorpresa handia izan da, eta balioa ematea erabaki dute; ezkultalekuek atera eta haien lanak erakustea, herritarrek eta bisitariak ere deskubritu zituzten.

Helburu solidarioa dago horren guztiaren atzean. Hondarribia-Katsikas boluntario taldeak zozketa solidarioa egingo du bi aste barru, eta errifak saltzen ari dira, euro batean. Mari Jose Aseginola za presidenteak azaldu duenez, herri osoa inplikatu nahi izan dute: «Udazkenean osasunari eta elikadurari lotutako proiektu bat abiatu nahi dugu Grezian, eta herriko profesionalak laguntza eskatu diegu. Bakoitzari bere jarduerarekin zerikusia duen zerbait oparitzeko eskatu diegu; artisten kasuan, artelan bana». Aste honetan ari dira opariaren zerrenda ixten, eta, dagoeneko, 370 baino gehiago lortu dituzte, horien arte-

an 63 artistaren lanak. Apirilaren 22an zozketatuko dituzte «jendaurrean, kristalezko kutxetan».

Zozketan, gainontzeko opariekin adina balioko dute artelanez, baina Maite Garcia Hondarribia-Katsikaseko boluntarioak argi du «beste zerbait» badutela: «Artelana bakoitzean egilearen zati bat dago, eta horri balioa eman nahi genion. Ez genuen uste hainbeste artista zeudenik herrian, izugarri ondo portatu dira gurekin, eta artea sortzen eta erakusten ari diren lanari balioa eman nahi izan diogu. Eta, horretarako, zer hobetik erakustea baino?».

Hiru erakusketa antolatu dituzte dohaintzan jasotako artelanak erakusteko. Aste honetan ireki dituzte bi: Bernat Etxepare kaleko Route 33 kafetegian bat (portuan), eta Damarri plazako Otzazki galerian bestea. San Pedro kaleko Sardara tabernan zabalduko dute hirugarrena, hilaren 20tik 23ra, larunbat horretan zozketa egingo duten plazaratxoaren parean. Judas Arrieta artistari eskatu diote laguntza erakusketak antolatzeko, eta hura aritu da lanak sailkatzen, bakoitzaren ezaugarrien arabera leku egokia bilatzen. Dohaintzak izan arren, lanen maila nabarmendu du Arrie-

tak: «Oso artelan onak lor daitezke euro bakar baten truke; Remigio Mendibururen grabatu bat, esaterako. Baina, horren gainetik, artista guztien jarrera izan da polita, eta haien eskuzabaltasuna».

«Eskaintza heterogeneoa»

Mendiburuz gain, Iñaki Grazena, Agustin Tife, Javier Sagarza, Sara Otaño, Jose Luis Noain eta beste hainbaten lanak jaso dituzte. Izen handiak, askotariko diziplinakoak, artista amateurekin maila berean nahastuta. 32 lan bildu dituzte Route 33 kafetegian, bi paretetan banatuta. Otzazki galerian, beste hogei in-

guru. Gainontzekoak Sardaran erakutsiko dituzte. Arrietak azaldu du lanak banatzeko irizpideak zeintzuk izan diren: «Artelanez eskaintza heterogeneoa da nabarmenena; denetik dago. Route 33 kafetegian mosaiko bat osatu dugu obrekin. Otzazkin, berriz, pieza txikiak eta eskulturak jarri ditugu, espazioarekin hobeto egokitzen zirelako. Sardaran, lekuak eskatuko digu lanak bata bestearen ondoan jartzea».

Otzazkin, galeriako bazkide bakoitzak bana eman du –bederatz, orotara–, eta beste hamar bat lanekin osatu dute erakusketak. Juncal Alfonsok muntatu du, eta artelanen «sentikortasuna»

Hilaren 21-22an mural erraldoia sortuko dute

+ Hondarribia-Katsikas hilaren 22an egingo du zozketa, goizez, San Pedro kalean. Handik oso gertu, atzealdean, Madalen plazan, arteari lotutako beste ekintza ikusgarri bat antolatzen ari dira, bezperatik egiteko. Arrietak gidatuta, zuzeneko mural erraldoia margotu-

ko dute auzolanean, errotulagailuak, margoak, proiektzioak eta abar erabiliz: «Arratsaldean, hurrek, eta, 22:00etatik aurrera, nagusiek. Hurrekin atzealdeak egingo ditugu, eta nagusiekin, mezuak eta irudiak. Artearen bitartez errefuxiatuen dramaren inguruan hausnartzea da helburua; Grezian gertatzen ari dena irudikatzen saiatuko gara».

Eta larunbatean murala suntsituko dute. «Errefuxiatuak gu-

nabarmendu du: «Ez dira ausaz hautatutako lanak, artista bakoitzak zerbaitegatik hautatu ditu. Dohaintzetan konpromiso handia dago, eta erakusketaren balio emozionala ere halakoa da».

Urrats gehiago behar dira

Otzazkin bazkideak ez diren artelanak erakusten dituzten lehen aldia da, eta bazkideek galeria ireki ahal izatea begi onez ikusi dutela dio Alfonsok: «Ekintza honek ez du aurrekaririk. Helburu beraren inguruan ekintza gehiagorako akuilua izango da hainbeste artista elkartzea, ziur, eta horrek eskualdean dekadentzia dagoen baina izaera handia duen artearen sektorea indartzeko balioko du».

Egun, Otzazki da modu iraunkorrean erakusketak antolatzen dituen Hondarribiko galeria bakarra, eta, Maite Garciak jakinarazi duenez, horregatik jo du atea: «Duela urte batzuk, galeria asko zeuden Hondarribian. Orain, Otzazki bakarrik erakusten ditu artelanak urte osoan». Bazkideek esker oneko hitzak dauzkate Hondarribia-Katsikasentzat. «Parte hartzea sustatu, eta artea eta kultura aintzat hartu dituen sare soziala ehundu dutelako».

Arrietak ere gogoan du Hondarribia galeriaz josita zegoeneko garaia, eta horren falta sumatzen du: «Garai bateko arte galeriak desagertu egin dira, eta artista lokalek oso aukera gutxi dute lanak erakusteko. Ekimen hau gauzatzeko areto pribatueta joan behar izan dugu, Hondarribiak ez duelako leku publiko bat artista lokalen edo bestelako lanak erakusteko. Hondarribia-Katsikasen proiektu honek argi erakutsi du artistak badaudela».

Hondarribia-Katsikas boluntario taldearen ekimenarekin argi gelditu da Hondarribian dozenaka artista daudela; 63, behintzat, bai. Hilaren 23ra arte izango da aukera haien lanak deskubritzeko. Ez dadila horretan bakarrik gera.

gandik banatzen dituen harresia bota egingo dugu». 800 puskan zerratuko dute, eta bakoitza euro batean saldu. Hala, ekintzan parte hartzen dutenek formatu handiko artelan bat sortzeko aukera izango dute, eta haien gurasoek, artelan horren zatitxo bat etxera eramateko. «Herritarrek parte hartzea eta esperientzia horren zati bat etxera eramatea da helburua, eta, aldi berean, errefuxiatuei laguntzea», azaldu du Arrietak.



Hainbat ogitarteko eder, Juantxo tabernako barraren gainean. JUAN TXO TABERNA

OGITARTEKO ETA PINTXO GOZOAK JUAN TXO TABERNAN

Donostiako Parte Zaharrean dago Juantxo taberna, eta berritu egin dute, baina betiko jaki bikainak dasta daitezke giro alaietan, betiko giro euskaldunean: ogitarteko, 'bolintxe', pintxo eta anoa ederrak.

Xabier Agirrek tabernaren ardura hartzea rekin batera berritze lan batzuk egin dituzte. «Nire gurasoak eta izeba-osabak 36 urtean egon dira hemen, taberna eramaten, eta aurreko urtean abenduaren 31n uztea erabaki zuten. Nik hemen urte pare bat neramatzan lan egiten, eta aukera ikusi nuen tabernarekin jarraitzeko. Berritze lan batzuk egiteko momentu egokia izan da».

Barraren atzeko eskaileretatik behera dagon sukaldia berritu egin dute, eta tabernan zaharberitze lan batzuk ere egin dituzte, nahiz eta egitura ez den aldatu. Paretak margotu egin dituzte, zorua aldatu dute, eta, barruko mahaiak eta aulkiak gutxi gorabehera toki berean egon arren, taberna orain erosoagoa da bezeroentzat.

«Espazio sentsazioa pixka bat handiagoa da orain, eta erosotasun handiagoa dago».

Ohiko bezeroek ongi hartu dituzte berrikuntzak. «Bezeroei gustatu zaizkie aldaketak, argitasun sentsazio handiagoa dagoela esaten dute, eta espazio aldetik tokia handiagoa dela ematen duela. Urte asko izan dira aldaketarik egin gabe, eta bazen garaia tabernari astindu txiki bat emateko».

BETIKO EZAUGARRIAK

Paretetan betiko argazkiak dauka, sepia koloreko Donostiako garai bateko argazki handiak. Udalletxea, estropadak Kontxako Badián, olatu handiak Pasealeku Berrian, Uli mendia eta Igeldeko funikularra ikus daitezke irudietan. Berritu arren, betiko Juantxo taberna baita. Betiko jakiak dira, langile gehienak aurreko berak dira eta asmoak ere berberak dira.



Paretak margotu egin dituzte, zorua aldatu dute, eta, orain taberna erosoagoa da bezeroentzat. JUAN TXO TABERNA

Azken batean, Juantxo tabernak bere betiko izaerari eutsi dio, eta jatorrizko ezaugarriak gordetzen ditu. «Nire helburua da donostiarraren eta gipuzkoarren taberna izatea aurrerantzean ere, erreferentzia bat izatea haienentzat, nahiz eta kanpotarrak ere ongi etorriak

izango diren», Agirrek azpimarratu duenez. «Nire familiak hori lortu du, eta horri eutsi egin nahi diogu hemendik aurrera».

Beti bezala, Juantxo tabernan, «tortilla patatana laaau», «xolomua gaztakin biii», «bolintxe bat tortillanaaa» eta horrelakoak en-

tzun daitezke, zerbitzariak sukaldariei interfonoaren bidez esaten, eta, handik gutxira, karga igogailuaren bidez igoko dizkiete sukaldetik.

«Bezeroei gustatu zaizkie aldaketak, argitasun handiagoa dagoela esaten dute eta tokia handiagoa dela ematen duela»

«Donostiarraren eta gipuzkoarren taberna izango da aurrerantzean ere, baina kanpotarrak ere ongi etorriak izango dira»

XABIER AGIRRE

Juantxo tabernaren arduraduna

Zerbitzariak gelditu gabe aritzen dira lanean, bezeroen joan-etorria etengabea izaten baita. Batzuk eserita egoten dira, barruko mahaietan edo Esterlines kaleko plaza txikian jarrita dauden kanpoko mahaietan –jantoki aparta, eguraldi onarekin–, eta beste batzuk zutik, barraren ondoan dastatzen Juantxo tabernako mokadu gozoak. Batek baino gehiagok ogitartekoak eramateko eskatzen ditu, hondartzan, portuan, parke batean, mendian edo etxean jateko.

AUKERA ZABALA

Juantxo tabernako patata tortillaren ogitartekoak eta bolintxeak ospetsuak dira, eta txipiroienak ere bai, baina pintxo, ogitarteko eta anoa aukera zabala dute.

Besteak beste, ogitarteko hauek jan daitezke: tortillak (patata, txanpiñoia, txorizoa, txistorra, gazta, bakailaoa, atuna, urdaiazpikoa eta zainzuria), begetala, solomoa (piperrekin edota gaztarekin), txorizoa, txistorra, urdaiazpikoa, gazta, mistoa, txipiroiak, oilaskoa eta xerra.

Pintxo bero hauek: kroketa, muskuilua, arrautza bexamelarekin, patata tortilla, ganba (frijitua, edo bexamelarekin), haragibola, solomoa, oilasko izterra bexamelarekin, txorizo egosia, txistorra, txipiroia, piper bete eta txanpiñoia.

Eta jaki hauen anoak: txipiroiak, txanpiñoiak, errusiar entsalada, patata tortilla, muskuiluak, haragi bolak, oilasko bularkia, solomoa, hamburgesa, krocketak eta patata minak.

Juantxo taberna Donostiako Parte Zaharrean dago, eta bi sarrera ditu; sarrera nagusia Enbeltran kaleko 6. zenbakian dago, eta beste sarrera Esterlines kaleko plaza txikian. Egunero zabalik dago. Hona hemen telefono zenbakia: 943-42 74 05.



Dantzariak, iaz, Usurbilgo IV. Dantza Egunean, goizeko ekitaldian; Iruñea, Lasarte-Oria eta Derioko talde bana gonbidatu dute aurten. USURBILGO DANTZA TALDEA

Oinak arinak eta burua arinago

Egun osoko egitaraua prest dutela, V. Dantza Eguna ospatuko dute bihar Usurbilen
• Iluntzean, 'Indiana Jones eta kaliz sakratua' ikuskizunean arituko dira 70 bat herritar

Unai Zubeldia

Azken bost urteotan leherketa baten modukoa bizi izan dute Usurbilen. Gipuzkoako beste hainbat herritan gertatzen den neurri berean, orain gutxi arte haurrek osatu izan dute herriko dantza taldea. «Baina duela bost urte helduen dantza taldea ere sortu genuen, dantzak beste modu batera lantzeko helburuarekin», zehaztu du Eli Eizagirrek, Orbeldi dantza taldeko kideak (Usurbil, 1987). «Hausnarketa fase baten ondoren, herriko festetako betiko emanaldiaz gain, beste zerbait egiteko garaia zela ikusi genuen».

«Dantza egun» bihurtu zen ia oharkabeen sortutako mugimendu hura. «Euskal dantzen arratsaldea antolatu genuen lehen urte hartan, Usurbilgo hainbat dantza diziplinak bat eginda: zumba, aretoko dantza, gaztetxe-ko taldea...». Eizagirreren hitzetan «xumea» izan zen lehen ekitaldi hura. «Baina gerora gauza

gehiago sortuz joan gara, eta bosgarren urtera ere iritsi gara».

Egun bakarreko jaialditik ia aste osoko egitaraua igaro dira tarte txikian, beste hainbat egitasmoren artean V. Dantza Eguna harira erakusketa bat izango delako ikusgai bihar arte –atzo inauguratu zuten–. «Ion Markel Saez de Urabaienek atera izan ditu urtero argazkiak Usurbilgo Dantza Egunean. Orain arte, guk bakarrik eduki izan ditugu argazki horiek, baina uste dugu merezi duela herritar guztiek ikus ditzaten». Sutegi udal liburutegian egongo dira ikusgai argazkiak. Etzi, berriz, Tioteronen semeak taldearen Fresh-Cool ikuskizunarekin gozatu ahal izango da Mikel Laboa plazan (13:00).

Hori bai, biharkoa izango da egun handia Usurbilen. Orain artean, Gipuzkoako dantzari txikien egunetan eta parte hartu izan dute Orbeldi dantza taldeko kideek. «Baina, lehen aldiz, Ortzadar (Iruñea), Erketz (Lasarte-Oria) eta Lainomendi (Derio)

dantza taldeetako dantzariak gonbidatu ditugu herrira. Pixkanaka, hainbat probintziatako dantza taldeak ekartzea da helburua». Lehen haziak ereiten ari dira. Iruñea, Lasarte-Oria eta Derioko dantza taldeekin batera, herriko neska-mutikoez ere parte hartuko dute goizean. Usurbilgo Udalarekin eta Hurbilago merkataritza elkartearekin elkarlanean antolatuko du eguna Orbeldi dantza taldeak.

Aktoreak eta musikariak

«Guretzat, ordea, gauekoa da ekitaldi nagusia». Eizagirrek ez dauka zalantzarik. *Indiana Jones eta kaliz sakratua* ikuskizuna egingo dute 70 bat usurbildarrek. «Ia urte guztian aritu gara lanean, ikuskizun horretan ez duela parte hartuko dantza taldeak bakarrik». Antzerki taldeko bost aktore ere igoko dira taulara. «Eta herriko musikariak ere zuzenean ariko dira». Oinak eta burua elkarrengana hurbilduta, Usurbilek bere egingo du Bara-

tzeko pikuak kantuen mezua: «Baratzeko pikuak hiru hosto ditu: dantzan dabilen horrek oinak arin ditu. Oinak arin arinak, burua arinago: dantzan hobeto daki arta-jorran baino».

«30 bat urte» dauzka Orbeldi dantza taldeak, eta Euskal Herriko hainbat txokotan emanaldiak egindakoa da. «Iaz, esaterako, Zuberoara joan ginen. Oso herri mailako egitasmoa izan da orain

EGITARAUA

Atzo hasi eta bihar arte, dantzaren inguruko argazkiak ikusgai daude Sutegi aretoan. Ion Markel Saez de Urabaienek aurreko urteetan aterako argazkiak dira. Gaur, berriz, Donostiako Musika eta Dantza Eskolako ikasleak ariko dira Sutegin 19:30ean; eta, biharko, egun osoko egitaraua prestatua dute Usurbilen, V. Dantza Egunean:

10:30. Dantza taldeen harrera, Potoxoen. Parte hartzaileak: Ortzadar (Iruñea), Erketz (Lasarte-Oria), Lainomendi (Derio) eta Orbeldi (Usurbil) dantza taldeak.

11:30. Argazki ofiziala udaletxe aurrean.

12:00. Kalejiraren hasiera. Herriko hainbat gunetan geldialdiak egingo dituzte dantza saioak egiteko.

13:30. Ekitaldi nagusia, pilotalekuan.

14:30. Dantzarien bazkaria Uda-regon ikastolan.


18:00. Dantzaldi gidatua pilotalekuan, Ttipika taldearekin.

22:30. *Indiana Jones eta kaliz sakratua* ikuskizuna, Orbeldi dantza taldearen eskutik. Musika, dantza eta antzerkia uztartzen ditu ikuskizunak, eta 70 herritarrek parte hartuko dute.

artean». Baina azken bost urteetan izugarri handitu zaie proiektua. Eizagirrek emandako datuak aztertu besterik ez dago horretaz jabetzeko: «124 ume dauzkagu dantza taldean, baita 80 bat heldu ere». Bihar iluntzeko ikuskizunari dagokionez, azken hilabeteotan «hamar-hamabi lagunekoa monitore taldea» aritu da lanean 70 herritar taula gainera igotzeko. «Eta beste sei-zortzi lagun aritu gara egun hau antolatzeko lanean, Gabonetatik».

Usurbilen zati handi bat taula gainean izango da bihar, eta beste zati handi bat behealdetik begira izango dute. «Baina nahi duten guztientzat irekita daude herriko ateak, eta animatu etortzera, festa giro polita izaten dugulako beti».

berria laguna



Aulia baserria, 14
Guadalupe auzoa
943-80 60 66
LEGORRETA

MUSIKA

AIA Aristerrazuko erromeria:
Ostolaza eta Narbaiza.
●Igandean, 18:30ean, Andatzan.

ANDOAIN Ruper Ordorika.
●Gaur, 21:30ean, Basteron.

ARRASATE Whitney Rose eta
What A Band.
●Bihar, 20:00etan, Amaia antzokian.

AZKOITIA Muskulo.
●Igandean, 19:00etan, Matadeixen.

AZPEITIA Gaitze eta Baserriko
Ollaxkue Labien.
●Gaur, 22:00etan, Orkatz
kultur elkartean.

BERGARA Organoa ezagutu
ezazu! entzunaldi pedagogikoa.
●Bihar, 11:30ean, Santa Marina
elizan.

BERGARA Cabezafuego,
What A Band eta Zigor DZ.
●Bihar, 22:30ean, gaztetxean.

DONOSTIA Pajaro Sunrise.
●Gaur, 20:00etan, Dokan.

DONOSTIA The Paperhead
eta Los Secos.
●Gaur, 20:00etan, Tabakaleran.

DONOSTIA Havalina.
●Gaur, 20:30ean, Dabadaban.

DONOSTIA Stop Heteros:
La Prohibida, Soy una Pringada
eta Sansex.
●Gaur, 23:45ean, Dabadaban.

DONOSTIA Bellako, Meltdown
eta Hilotz.
●Bihar, 20:00etan, Dokan.

DONOSTIA Jabi Izurieta eta
Physis versus Nomos.
●Bihar, 21:30ean, Altxerrin.

DONOSTIA Los Tiki Phantoms
eta Ladrones de Guitarras.
●Bihar, 22:00etan, Intxaurren
kultur etxean.

DONOSTIA Global Funk Party:
Miguel Angel Sutil & Makala DJak.
●Bihar, 23:30ean, Bukowskin.

DONOSTIA Isotopes.
●Asteartean, 20:30ean,
Dabadaban.

DONOSTIA Ze Premikin jaialdia:
Willis Drummond, Atom Rhumba,
Estricalla, Niña Coyote eta Chico
Tornado, Johny Casino, Oskar
Benas, Cobra eta Sofa.
●Asteazkenean, 20:00etan,
Gazteszenan.

Donostia ● Ze Premikin jaialdia



«Akelarre lotsagabea», Donostiako Gazteszenan

Bi agertoki, hiru DJ saio, kontzertu mordoa... Donostiako Egia auzoan, Le Bukowski klubak bere urteroko musika jaialdia antolatuko du hurrengo as-
teazkenean. Astegun buruzuri bat asteburu erraldoi bihurtuko dute Gazteszenan, seigarren Ze Premikin jaialdian. 20:00etan hasiko dira kontzertuak,
eta 06:00etan amaituko dira. Willis Drummond, Estricalla, Atom Rhumba, Niña Coyote eta Chico Tornado —irudian—, Johnny Casino, Sofa, Oskar
Benas, Cobra, Blami, Francis Be eta Eddie Maek parte hartuko dute. Sarrerak 15 euroan daude salgai. GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

DONOSTIA The Dictators
eta CRAP.
●Ostegunean, 21:00etan,
Dabadaban.

GETARIA The BlueHats.
●Gaur, 22:30ean, Sokoa tabernan.

IRUN Kontserbatorioko Gradu
Profesionaleko ikasleen emanaldia.
●Gaur, 19:30ean, Oiasso musean.

IRUN The Moon and The
Nightspirit eta Trobar de Morte.
●Bihar, 19:00etan, Tunk aretoan.

IRUN Jean Mixel Bedaxagar
eta Juan Mari Beltran: Zuhainpeko
soinuak.
●Bihar, 20:00etan, Amaia
kultur zentroan.

LEZO Lesoinu: TGLUMEko hari
orkestra eta Musikarekin jolasean.
●Gaur, 17:00etan eta 18:00etan,
TGLU musika eskolan.

LEZO Lesoinu: Lauhaizeta
akordeoi taldea.
●Gaur, 19:30ean, Gezalan.

LEZO Lesoinu: Kantujira.
●Bihar, 12:30ean, Aitor Bordan.

OIARTZUN Alerta Gorria,
The Fridays Crew, Sinners,
The Guilty Brigade, The Bobbys,
Yakolev 42, Sutura eta Against You.
●Bihar, 16:30ean, herriko plazan.

ORDIZIA Voltaia, Gulty Brigade
eta Bedeinkatuak.
●Gaur, 22:00etan, gaztetxean.

TOLOSA Viva Bazooka eta
Killerkume.
●Gaur, 22:30ean, Bonberenean.

TOLOSA Screamin Targets
eta Lie Detector.
●Bihar, 22:30ean, Bonberenean.

URNIETA Oso Fan.
●Ostegunean, Xauxar tabernan.

URRETXU Artus eta France.
●Asteartean, 19:00etan,
Gaztelekun.

ZARAUTZ Hirnsaule eta Veto.
●Astelehenean, 21:00etan,
Putzuzulo gaztetxean.

ANTZERKIA

AZKOITIA Txanogorritxu Rock.
●Bihar, 18:00etan, Baztartxon.

BEASAIN Desoxirribonukleiko.
●Gaur, 22:15ean, Usurbe antzokian.

DEBA Maribel Salas eta Iñigo
Salinero: Monolokos.
●Gaur, 22:00etan, kultur elkartean.

DONOSTIA Mikroantzerkia:
La Bruta Bélica, Sopa de Colibrí
eta Tribulaciones de un Gigoló.
●Gaur eta bihar, 20:00etatik
22:00etara, eta igandean, 18:30etik
20:30era, La Farandulan.

DONOSTIA Ele! Lorca-Lauaxeta.
●Bihar, 20:00etan, eta igandean,
19:30ean, Antzoki Zaharrean.

DONOSTIA La propuesta.
●Bihar, 20:00etan, eta igandean,
19:30ean, Lugaritz kultur etxean.

DONOSTIA Pentacion: El padre.
●Bihar, 20:00etan, eta igandean,
19:30ean, Victoria Eugenia.

DONOSTIA Pantzart: Kolorez kolore.
●Asteartean, 17:30etan, Casaresen.

DONOSTIA Jose Cruz Gurrutxaga:
Declaración de Guillermo.
●Asteartean, 19:30etan,
Ernest Lluch kultur etxean.

ELGETA Patata Tropikala: Azken
eguzkilorea.
●Gaur, 17:30ean, Mendizaleen
plazan.

HONDARRIBIA Go!azen.
●Bihar eta igandean, 16:00etan
eta 18:30ean, Itsas Etxean.

LASARTE-ORIA Pirritx, Porrotx
eta Marimotots: Tipi-tapa, Korrika.
●Bihar, 16:00etan eta 18:30ean,
Manuel Lekuona kultur etxean.

TOLOSA La Canica: La sirenita.
●Bihar, 18:30ean, Topic gunean.

ZUMARRAGA Karabansarai: Ele!
Lorca-Lauaxeta.
●Gaur, 22:30ean, Zelai Ariztin.

BERTSOLARITZA

ABALTZISKETA Gipuzkoako
Herriartekoa. Bertso bazkaria.
●Igandean, 14:00etan, Zalbiden.

ATAUN Bertso afaria.
●Gaur, 20:30ean, Oargi elkartean.

AZKOITIA Gipuzkoako
Herriartekoa. Bertso afaria.
●Gaur, 21:00etan, Tintorerin.

GABIRIA Gipuzkoako Herriartekoa.
Bertso-afaria.
● *Gaur, 21:00etan, Osinalden.*

HONDARRIBIA Gipuzkoako Herriartekoa. Bertso bazkaria.
● *Bihar, 14:00etan, Olagarron.*

LEGAZPI Korrikako bertso afaria: Andoni Egaña eta Jone Uria.
● *Gaur, 21:00etan, Aitxuri jatetxean.*

LEINTZ GATZAGA Korrikako bertso afaria: Onintza Enbeita eta Jon Maia.
● *Bihar.*

OÑATI Gipuzkoako Herriartekoa. Bertso bazkaria.
● *Igandean, 14:00etan, Araotzeko saloian.*

ORMAIZTEGI Korrikaren aldeko bertso afaria: Maialen Akizu eta Eneko Araiztegi Korta.
● *Gaur, 21:00etan, Barduliarra-en.*

URRETXU Gipuzkoako Herriarteko Bertso Txapelketa.
● *Igandean, 18:00etan, Osaban.*

ZALDIBIA Osin Berde Saria. Bertso afaria: Peru Abarrategi, Ane Beloki, Aitor Bizkarra, Jon Gurrutxaga, Unai Mendizabal eta Mikel Retolaza
● *Bihar, 20:30ean, Osin Berden.*

DANTZA

BEASAIN Balleta zuzenean: Jewells.
● *Asteartean, 20:15ean, Usurben.*

DONOSTIA Marco Vargas & Chloe Brule: *Libertino*.
● *Bihar, 20:00etan, Gazteszenan.*

USURBIL Dantzaren Eguna.
● *Bihar, 10:30etatik aurrera.*

ERAKUSKETAK

BERGARA Pablo Ugartetxea: *Transit Town - Out Town*.
● *Gaurtik apirilaren 26ra arte, Aroztegi aretoan.*

DONOSTIA Anaïs Tondeur eta Michael Marderren *Chernobyl Herbarium*.
● *Maiatzaren 1era arte, Kristinaenean.*

DONOSTIA Begoña Zubero: *GDP. Gente del Po*.
● *Ekainaren 2ra arte, Tabakaleran.*

EIBAR Isidro Etxeberria Ubitxaren lanen erakusketa.
● *Apirilaren 23ra arte, Portalean.*

ERREENTERIA Tirabira erakusketa.
● *Igandera arte, Merkatzarren.*

ERREENTERIA Emakumeak. *Afganistan*: Gervasio Sanchez fotokazetariaren eta Monica Bernaberen argazkiak.
● *Asteazkenara arte, Niessen-en.*

PASAIA Pasaiaiko herritik zuri-beltzeko argazki erakusketa.
● *Maiatzaren 7ra arte, Victor Hugo etxean.*

URRETXU *Arte liburua* erakusketa.
● *Igandera arte, Juan de Lizarazu erakusketa aretoan.*

ZUMARRAGA Fermin Lopetegi: *Inaziotar Bidea* argazki erakusketa.
● *Igandera arte, Zelai Arizti aretoan.*

IKUS-ENTZUNEZKOAK

DONOSTIA Giza Eskubideen Zinemaldia: *Anatomy Of Violence*.
● *Gaur, 16:30ean, Viktoria Eugenia antzokian.*

DONOSTIA Giza Eskubideen Zinemaldia: *Fatima*.
● *Gaur, 19:00etan, Loiola kultur etxean.*

DONOSTIA Giza Eskubideen Zinemaldia: *Itxiera* ekitaldia.
● *Gaur, 20:00etan, Viktoria Eugenia antzokian.*

HONDARRIBIA Bilbao Mendi Film Festival jaialdiko onena.
● *Gaur, 20:00etan, Itsas Etxean.*

Oiartzun • United Sounds jaialdia



Punk-Oi mugimendua indartu nahian

Indarrean sortu da United Sounds jaialdia. Punk-Oi taldeak batzea eta mugimendu hori indartzea da ekimenaren helburua, eta zortzi talderen kontzertuekin gozatu ahal izango da, bihar, Oiartzungo udaletxeko arkupeetan: Alerta Gorria, The Fridays Crew —irudian—, Sinners, The Guilty Brigade, The Bobbys, Yakolev 42, Sutura eta Against You. 16:30ean hasiko da jaialdia, eta ez da sarrerarik ordaindu beharko. Aurretik, 13:30ean, bazkari herrikoia egingo dute Oiartzungo gaztetxean. THE FRIDAYS CREW

BESTELAKOAK

ARRASATE Debagoieneko XXV. Jardunaldi Gastronomikoak.
● *Maiatzaren 1era arte.*

OÑATI Korrika: *BatZuk* dokumentala eta Txikiren bakarrizketa.
● *Gaur, 22:00etan, gaztetxean.*

ZUMAIA *X hil* da liburuari buruzko solasaldia, Alaine Agirre eta Uxue Alberdirekin.
● *Asteartean, 18:00etan, Oxforden.*

Egin zure aurrematrikulazio

Eskuorriak, aldizkariak,
kartelak...

**kanpaina
neurritik!**



bidera@bidera.eu
943-30 35 55 / 607-78 73 04
berria taldea
www.bidera.eu

bidera
zerbitzuak

INSTALAZIO
TAPIA
ELEKTRIKOAK

TELEKOMUNIKAZIOAK

Zubikoeta Industrialdea, 9
ATAUN ☎ 943 889 594
info@tapiainstala.com
www.tapiainstala.com

berri laguna

Olagi Sagardotegia
Nekazalturismoa

Larunbatetan,
autobusa
Lazkaoetik (20:30ean abiatzen da),
Besaindik eta Ordizitik. 5 euro. Urte osoan zabalik

olagi.altzaga@gmail.com • 943-88 77 26 • ALTZAGA



MUSEORA



Ezker-eskuin, Larrondoko zerrategia, 1711ko kartzela eta Herri Museoa. ALDABE

Herrian bisitatzea merezi duten tokiek osatzen dute **Zerain Paisaia Kulturala**. Lau gune nagusi ditu: museoa, adieraztegia, zerrategi hidraulikoa eta 1711ko kartzela.

Burdina, egurra eta ziega bat

Eider Goenaga Lizaso

Zerain Paisaia Kulturala ez da museo bat, baina bada museo bat bertan; ez da interpretazio zentro bat, baina adieraztegia dute Zeraingo burdin ekoizpenaren inguruan; ez da mendi ibilbide bat, baina bertan dago Burdinaren Mendia... «Herri osoak osatzen du Zerain Paisaia Kulturala, eta bisitatzea merezi duten tokiak daude bertan bilduta: zerrategia, adieraztegia, museoa, artzaintza, baserriak...», azaldu du Miren Makatzaga Zerain Paisaia Kulturalako arduradunak (Zerain, 1977). Azaldu du Zerainek ikusteko eta gozatzeko gauza eta toki asko dituela baina bereziki lau gune nabarmentzen direla.

Gune horietako bakoitzak bere kabuz badu garrantzia eta balioa, baina 1999an sortu zuen Zeraingo Udalak hori guztia kudeatuko zuen Aldabe enpresa, eta, orduetik, gune guztiak multzo gisa hartu eta kudeatzen dira, nahiz eta toki bakoitza bakarka bisitatzeko den.

Lau guneetan lehena Herri Museoa da. «Museo etnografikoa da, eta garai bateko apaizetxeko ganbaran dago. Baserrietan erabili izan diren tresnak daude, eta gauza guztiak herriko jendeak lagatakoak dira». Diaporama baten bidez, museoaren sorrera azaltzen zaio bisitariari, eta ondoren igotzen da ganbarara han bildutako piezak ikustera. «Herriko bizimodua azaltzea da helburua, eta denetik dago. Herriko kartze-



Burdinaren Mendian, besteak beste, labeak bisita daitezke. ALDABE

lako zepoa, jatorrizkoa, museoa dago; nekazaritzako tresna pila bat daude; etxeko tresnak ere bai... Eta, nekazaritzaz gain, Zerainen egon diren beste lanbideei lotutako tresnak ere baditugu: ikazkintza, meatzaritza, zerrategia, harrobia... Beraz, erakusketan gauza asko dago ikusteko».

Bigarren gunea Burdinaren Mendia da, eta hiru atalek osatzen dute: Aizpitta Adieraztegia, labeak eta galeriak. «Adieraztegia, ikus-entzunezkoen eta panelen bidez, meategietan lan egiteko modua agertzen da, nola ateratzen zuten minerala menditik, nola ekartzen zuten labeetara, kiskalitakoa nola garraiatzen zuten Ormaiztegiara eta handik Paisaiara... Prozesu osoa azaltzen da

bertan, baita kiskalita gelditutako basoa nola leheneratu zen ere». Handik labeetara eramaten dituzte bisitariak, labeetan nola lan egiten zuten ikustera, eta, hortik, meategiko galeria bisitatzera. «Galeria mordo bat zeuden hemen inguruan, baina labeen inguruan galeria bat egokituta dago bisitak egiteko».

Kartzela

1711. urteko kartzela bat nolakoa zen ere ikus dezake Zerainera joaten denak. Ziega hori iragaitzazko kartzela modura erabiltzen zen, Zerainen garrantzi handiko bigaltzada elkartzen zirelako XVIII. mendean. Horrez gain, Zeraingo burdin meategietara lan egitera zigortzen zituzten presoek gaua

han egiten zuten. «Garai hartako udalen betebeharra zen kartzela bat edukitzea, eta Zeraingoan ikusten da nola zeukaten pareta egurrez estalita eta nola edukitzen zituzten presoak zepoari lotuta eta eskuburdinekin».

Larrondoko zerrategi hidraulikoak osatzen du laukoa. «Uraren indarrarekin funtzionatzen duen zerrategi bat da; bisitetan martxan jartzen dugu, eta argindarra nola sortzen den ikusten da».

Zerrategia, gainerako guneak bezala, bakarka bisita daiteke, baina baita Burdinaren Mendiarekin batera bisita gidatua egin ere. Horrez gain, taldeek duten «interesa eta denboraren arabea», era bateko edo besteko bisitak antolatzen dituzte.



ZERAIN PAISAIA KUTURALA (ZERAIN)

Zeraingo ondare kultural historikoan lau gune dira bisitagarri, eta horiek dira Zerain Paisaia Kulturalaren eskaintza osatzen dutenak.

Herri museoa

Ordutegia. Turismo bulegoaren ordutegi bera du museoak. Astelehenetik ostiralera, 10:30etik 13:30era eta 15:30etik 18:30era; larunbatean eta igande eta jaiegunetan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Sarrera. Bakarka bisitatzeko, turismo bulegoa irekita dagoenean egin daiteke. Taldean bisita gidatua egiteko, aurrez deitu behar da; ordutegi horretatik at ere izan liteke.

Prezioa. Helduek 3€, eta umeek 1,5€. Taldean, 2€ bakoitzak.

Burdinaren mendia

Ordutegia. Adieraztegia, labeetako bira eta galeriaren bisita gidatua larunbat, igande eta jaiegunetan egiten da, 12:00etan.

Prezioa. Helduek: 6,50 €; 5-14 urte bitarteko umeek 4€. Taldean, bakoitzak 4€.

Larraondo zerrategi hidraulikoa

Ordutegia. Bisita gidatua larunbat, igande eta jaiegunetan egiten da, 12:00etan

Prezioa. Helduek 2€, eta umeek 1,5€. Taldean, 1,5€ bakoitzak.

1711ko kartzela

Ordutegia. Herriko ostatutik sartzen da kartzela ikustera, eta ostatua irekita dagoenen bisita daiteke.

Prezioa. 1€.